

DESBERDINTASUNAREN ETA ZATIKETA SOZIALAREN AURKA

Apirilaren 22an Arizmendiarrietaren jaiotzaren 110. urteurrena gogoratu genuen Barinagan (Markina-Xemein).

Omenaldi eta ospakizunetatik harago, haren proposamenak partekatu nahi ditugu, intimitatetik eta konpromiso pertsonaletik.

Gure begien aurrean gertatzen den zatiketa soziala injustizia sozialaren ondorioa da, eta horrek zaugarritasun eta bazterketara garamatza, baztertuak ikusezin bihurtzeraino.

Oraintsu arte imajinatu ere egin ez genituen egoeretan bizi gara: zenbait langilek duten soldatak ez die etxebizitza eta familiaren elikadura bezalako oinarrizko beharrei erantzuten uzten. Langile pobreak dira, pobrezia taldeetan sartu eta gero eta handiagoa den gizarte bazterketaren biktimak.

Desberdintasuna ez da pertsonen diru sarreretan edo ondare garbian bakarrik gertatzen. Bizi itxaropenari, pertsonak osasun zerbitzuetara iristeko duten erraztasunari, kalitatezko hezkuntzari edo zerbitzu publikoei ere eragiten die. Desberdintasunak daude generoen eta talde sozialen artean.

Desberdintasuna handitu eta mantendu egiten da, talde batzuek eragin handiagoa dutelako prozesu legegilean, eta horrek beste talde batzuei eragozten dielako sistemak beren beharrei erantzutea. Horrek politikak desitxuratzera eta prozesu demokratikoa hondatzera darama. Horixe salatu du Nazio Batuen Erakundeak.

Gaur egun badakigu planetako biztanleriaren %1ek munduko biztanleriaren %99k adina aberastasun duela.

Intermon Oxfameko ikerketa batek adierazten du 26 pertsonak 3.800 milioi pertsonaren aberastasun bera dutela. Bitartean, lan egiten duten heldu guztien laurden bat baino gehiago pobreak dira, eguneko 3,10 dolar baino gutxiago irabaziz.

Gatozen mundutik gure ingurune hurbilenera:

AROPE 2024ren arabera (pobrezia eta bazterketa sozialeko arriskua neurtzen duen Europako adierazlea), Euskadin pobrezia biztanleriaren %14,8ra igo da. 2008. urtetik, %30 baino gehiago hazi da. 326.785 pertsonak pairatzen dute, eta gure artean bizi dira.

Datuak dira, harritzen ez gaituen diagnostiko baten zifrak, baina egoera gogor eta eskandaluzkoa da.

Arizmendiarrietan Lagunak Elkarlean (ALE) Arizmendiarrietak hirurogeiko hamarkadan **Cooperacion** aldizkarian argitaratutako idatzietatik atera ditzakegun ikasgaiak ezagutzeko lanean ari gara.

Harren diagnostikoa zalantzarik gabea eta erradikala da:

Gurea bezalako herrialde batean, non ez dagoen esfortzu eta sakrifizioan benetako elkartasun izpirik klase sozial ezberdinen artean, hau da, ugazaben eta langileen artean, benetako arazo bat da gure GARAPEN EKONOMIKOAREN funtsezko oinarri dei genezakeena, alegia, indar guztien ELKARTASUNA, hain zuzen ere (1962ko ekaina).

Data horretan bertan langileen eta enpresaburuaren erantzukizuna aipatzen du.

Agian egun batean iritsi gintezke garai hauei haurtzaro sozialtzat kalifikatzera, non patroik edo enpresaburuaren gutxiengo bat baitzen aurreztu, kapitalak sortu eta inbertitzen zuena, horrela interes propioen zirkulua sortzeko, haien aberastasun handiak osatzen laguntzen zieten gehien-gehienak hortik kanpo moldatu behar zirelarik, noizean behingo protesta edo kexuekin konformatuta.

Eta herritarrak seinalatzen ditu, zuzenean inplikaturik daudelako, beren gelditasunagatik eta pasibotasunagatik:

Arizmendiarrietak hau idatzi zigun jada 1962ko urtarrilean: Ekimen pertsonala, askatasuna, giza ordena justu eta duina... giza komunitate bateko kideen inibizio edo pasibotasunarekin salbatu ezin daitezkeen balioak dira. Prezio bat dute, erantzukizun bat eskatzen dute eta sozializazio ekintza progresibo bat inposatzen dute, azken batean, GIZAKI GUZTIAK bizi garen munduan hobeto kokatuta senti gaitezke (1962ko urtarrila).

Haren iritzi kritikoa kooperatibisten portaera inplikaturik duen autokritika zorrotz bihurtzen da.

Aurrerapen soziala helburu espezifiko bat da kooperatibistentzat, zeinean garapen ekonomikoa ez duten ulertzen helburu gisa, baizik eta bitarteko gisa, gizaki zein komunitate osasuntsu baten oinarriak jartzeko. Horregatik, kooperatibistek arretaren lehen lerroa egituren eraldaketan jartzen dute.

Ezin dugu GARAPENA bilatu sakrifizioa eta arriskua saihestuz. Ezin dugu ESPLOTAZIOA saihestu ez badugu LANKIDETZA eta, beraz, elkartasun erregimen bat onartzen. ELKARTASUN ESKALA batetik kanpo kokatzen den oro, gutxienez, esplotatzaile izateko hautagai da, edo, beharbada, esplotazioaren konplize. (1963ko abendua).

Nekez ekidin genezake Arizmendiarrietak herritarrei, oro har, eta kooperatibistei, bereziki, zuzentzen digun interpelazioa. Interpelazioak zentzu handiagoa hartzen du pobrezia eta bidegabekeria sozial gero eta handiagoa ikusita.

Amaitzeko, 2022ko **Arizmendiarrietaren Lagunak Elkartearen** (ALE) Batzar Nagusira gonbidatu genuen Iñaki Gabilondoren hausnarketa batzuk aipatuko ditut, El Diario Vascon "**Klase ertainak sentitzen duen desberdintasuna eta izua bonba atomiko bat bezala dira**" izenburuarekin egindako elkarrizketa batean adierazi zituenak (2014ko abendua).

Gertatzen ari den lehen gauzetako bat da enplegurik gabe hazkundera egon daitekeela; gauza berria da, eta izua sortzen du. Nekazaritza sektorea krisian sartzen hasi zenean, milioika lagun lantegietara joan ziren. Eta krisi industrialak jendea zerbitzuen sektorerara bota duenean, mundu informatizatu batean, gutxik aurkitzen dute lana. Gainezka nagoelako sentsazio fisiko bat dut.

Gizarte honetan hondakin sozial oso handia sortzeak kezkatzen nau.

“Tira, ni Madrilgo erdigunean bizi naiz, leku pribilegiatu batean, eta 50 metrora bazkariak eta gosariak banatzen dituen leku bat dago. Eta horrek errealitate izugarri baten irudia eskaintzen du: esklusioa”.

Jose Mari Larramendi

ALEko kidea